

Noaia !!



Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu da



Cecilia, Amagoia eta Mari Angeles

lan munduko ateak irekitzen

Rafa

iturgindegia



astelehenetik ostiralera:
10h30-13h30 / 16h30- 19h30
larunbatetan:
10h00- 13h00

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

➤ www.noaua.com ◀
usurbildarron zerbitzura



USURBILGO HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
06/07/08. urtean jalo eta jaloko diren haurrak

- **NON:** Kalezarren • **ORDUTEGIA:** 7.30 -18.30
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA:**
martxoaren 3tik apirilaren 30era, 9.00etik 13.30era



OSASUN
HEZKETA



ELIBARRA
EKOLOGIKOA



JANTOKIA



ZERBITZU
PEDAGOGIKOA
GURAO ESKOLA



ERIMEN
BEREZIAL



☎ 943 374 061

Albisteak iruditan !!

Realak une honetan beharko duena...

Etxealdiarako bidea hartzen duenak bide bazterrean dagoen paretean animo guztien beharrea denaren aldeko pintada bat ikus daiteke; "Gora Erreal" dioena. Orain arteko joerari eutsiz, txuri urdinek azken jardundian ere Zaragozaren aurkako neurketa galdu zuten. Lehen Mailatik urruntzen eta Bigarrenera gerturatzen ari den honetan, Anoetako harmailak hutsago diruditenan, jokalariek burua altxatzeko ere nahikoa lan dutenean, ez dago soberan anonimotasunean herriko kaleetan agertu den idatzia. NOAUA!ko ale hau jokalariren batengana iristen bada, akaso bere egileak eskertu nahiko ditu.



Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerarai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

OSTIRALEAN, KARIDADEKO BENTA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

LAN MUNDUAN TOKI EGIN NAHIAN **8. OR.**

OLATZ ALTUNARI ELKARRIZKETA **10. OR.**

SAN MARKOSEN KANPAINA BERRIA **12. OR.**

JENDETZA BILDU ZEN DONOSTIAN **14. OR.**

ESKUBALOIKOAK, IGOERA FASEAN **15. OR.**



Gipuzkoako
 Foru Aldundiak
 diruz lagundutako
 aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



LUIS ARANALDE

Berriro Inkisizioa?

Berri kezagarria iritsi zaigu egun hauetan: Maria del Campo Galayo-ri ez omen diote berriro erlijioa irakasteko kontratua. Nonbait, Elizaren arduradunen ustez ez da erlijioa emateko gai. Zer dela eta? Kanariar Irletan bizi den irakasle hau dibortziatu egin da eta bikote berriarekin bizi da. Elizarentzat koherentzia falta dago irakasle horrek ematen duen gaiaren eta bere bizitza pribatuaren artean. Konstituzio Epaitegiak arrazoi eman dio Elizari; askatasun osoa ematen dio Elizari erabakitzeko zein den gai eta zein ez erlijio konfesionala irakasteko.

Izugarritzko haserrea sortu du Elizaren jarrera honek. Hasteko, Maria del Camporengan; honela dio: "Inkiszioaren garaian gaudela dirudi: senarrarengandik apartatzen bazara, kopa batzuk hartzera irteten bazara, ama ezkongabea bihurtzen bazara, erlijioa irakasteko gaitasuna kentzen dizue. Erlijio irakasleok guztiz salduta gelditzen gara. Sinesgaitza da egoera hau: kontratua Estatuarekin egiten dugu eta Administrazioak ordaintzen gaitu. Ni ez naiz ez apaiz eta ez moja; nik ez dut kasitatearen botorik egin".

17.000 erlijio irakasle daude Estatu osoan. Erlijio irakasleen federazioko presidente ordeak ere berdintsu zioen: "Irakasle hauen eginkizuna ez da katekesia ematea, erlijio ezagutzak edo jakintzak zabaltzea baizik". Alderdi politiko ezkertiarrek ere ez dute ulertzen nola egin daitekeen hori Estatu akonfesional batean.

Jokabide onaren karneta eskatzen hasiko ote da Eliza erlijio irakaslea izan nahi duenari? Zeinek neurtzen du jokabide bat noiz den zintzoa eta noiz gaiztoa? Zeinek esan du gaizki dagoe-la pertsona batek bere bizia berreraiki nahi izatea beste bikote batekin? Lehen bikotearekin porrot egin badu, ez du eskubiderik bere bizia berregiteko? Jokabide hori balore ebanjelikoen

kontra al dago? Ez dut uste. Zeharo okertzat jotzen dut pentsaera hori. Rafa Aguirre teologoak honela zioen aste honetan: "Zergatik elizak ez du erabiltzen zorrozetasun berdina espekulatuzaileekin, irratiaz gure eguneroko bizia pozoitzen dutenekin, Elizak bere baitan dauzkan pederastekin?".

Erlijio irakaskuntzaz badakizue nire pentsaera. "Primer viernes-ari ez, erlijio irakaskuntzari bai", zutabetxoan agertu nizuen nire iritzia. Gai hau eman behar duen irakasleari eskatu behar zaio akreditazio akademikoa, prestakuntza pedagogikoa, jakinduria, langile bezala dituen eginkizunak ondo betetzea. Erlijio irakaslea ez da berez katekista, ezta fedearen testigu ere. Irakaskuntzaz kanpoko autoritate batek, kasu honetan Eliza, "testigutza pertsonala" eskatzeari oso arriskutsu deritzo.

Polemika hau dela eta, Elizaz asko hitz egin da egunotan, eta oro har, bere jarrera gaitzesteko. Izan ere, jokabide hori ebanjelioaren baloreen kontrakoa baita. Ezkontza hautsi duenarekiko gertutasuna eta laguntza agertu beharrean zorientasuna berreskura dezan, oztopoak jartzen saiatzen da.

Aste honetan hizlari ospetsu batzuk izan dira Donostian Aita Arruperen ehun urteurrena dela eta. Horietako bat Juan Masiá jesuita da. Besteak beste hau zioen Eliza hierarkikoaren gainean: "Elizak beldur dio emakumeari, modernitateari, elkarrizketari, laikoei... Fobia horiek guztiak exortzizatu behar lituzke. Botere ultraeskuindarrekin ez luke bat egin behar, horrek kalte handia egiten dio". Eta amaitzen du: "moralitatearen jendarme izan beharrean, hobe luke esperantzaren mezulari bihurtuko balitz". Costa Gavras zinemagile ospetsuak ere zerbait antzekoa esaten zuen: "Elizak dogmari eman dio lehentasuna ia beti eta ez pertsonaren zorientasunari". Juxtu ebanjelioaren kontrakoa.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

18/98: bidegabekeriak aurrera darrai

Fiskalaren azken ebazpenaren araber, badirudi, zilegi eta bidezkoak diren jarduera politiko eta sozialak ETAREN konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parekatzen dituen tesiak, aurrera jarraitzen duela. Haserako zigor eskaeratik, erdira jaitsi du bere eskaria, baina hala ere 484 urteko espetxe zigorra eskatu du 52 auzipetuetzat. Gainera, zigor eskaera horiez gain, kantitate ekonomiko izugarriak eskatzen dira zenbaitzuentzat (4 milioi eurotik gorakoa kasu batzuetan).

Hamabost hilabete iraun duen ahozko epaiketak hasieran zeuden inpresio

berberak baieztatu ditu, nabarmen epaiketa politiko baten aurrean gaude-la. Zanpaketak aurrera darrai eta beharrezkoa da lanean jarraitzea, solidario izanez eta muntai judizial guzti hau salatzuz.

18/98 + Lan Taldetik askotan salatu izan dugu eskubide zibil eta politikoak urratzen zaizkiola euskal gizarte osoari, izan ere, argi baitago oinarritzko eskubideak diren hauek bermatuak behar liratekeela egon bere burua demokratikotzat duen edonongo herritan. Aniztasunean eta aberastasun sozialean, askatasunean eta pertsona guztion

eskubideetan zimendatutako Euskal Herria eraiki ahal izatea aldarrikatzen dugu.

Horren guztiaren aldarri, berriro ere Bilboko kaleetan izango gara martxoaren 10ean. Egoera larri honen aurrean, beharrezkoa da denon parte hartzea manifestazio jendetsua izan dadin.

Usurbildik joateko autobusa antolatuko da. Ohiko tokietan izango duzue apuntatzeko aukera, beraz adi deialdiari.

18/98 + Usurbilgo Lan Taldea

Ostiral honetan Karidadeko Benta, Korrika Kulturalaren eskutik

Korrikaren 15. edizioa hilaren 22an Karrantzatik abiatu eta apirilaren 1ean, Iruñean amaituko da. Lasterketaren atarian ospatuko da Korrika Kulturala eta horrek ere Usurbilen geldialdixoa egingo du martxoaren 9an. Karidadeko Bentak emanaldia eskainiko du Sutegin gaueko 21:00etan.

“San Quirico” izeneko lan berria aurkeztuko dute Karidadeko Benta taldeko kideek. Italiako herri txiki baten omenez hirugarren diskari jarritako izenburupean, hamaika abesti berri jasotzen dira. Horietan, bertsolariaren ikuspegitik jasotako bertso alai, ironiko eta pertsonalak tartekatzen dira. Ekialdeko sonoritatea baztertu gabe, beste itsasoetako doinuetara zabaltzen dira

Ahotsean Jon Maia, Aran Santamaria klarinete jolearekin batera. Inaxio Tolosak (klarinete, tronpeta eta saxoak), Jon Manzidorrek (baxua,



KARIDADEKO BENTAK “SAN QUIRICO” LAN BERRIA AURKEZTUKO DU SUTEGIN.

oud, gitarra), Imanol Manterolak (perkusioak) eta Domentx Uzinek (helikoia eta bibolina) osatzen dute Zumaian sortutako taldea.

Sarrerak 5 eurotan, Txiribogan Sutegiko Auditorioan eskainiko dute emanaldia ostiral honetan, hilak 9, gaueko 21:00etatik aurrera. Etumeta-AEK euskaltegiak antolatu duen ekitaldirako sarrerak aldeztatik eskura daitezke 5 euroren truke Txiribogan. Korrika Kulturalak ere bere geltokia izango du Usurbilen.

Martxoaren 15ean, NOAUA!ren eskutik, Euskarazko Film Laburren Zirkuitua

Abian da Euskarazko Film Laburren Zirkuitua, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak laugarren urtez martxan jarri duen ekimena. Zirkuituak 6 film laburrez osatutako 37 emanaldi eskainiko ditu beste horrenbeste herritan. Eskainiko den laburretako bat, Ane Muñozen “Loturak” izeneko, hain zuzen ere, zirkuituan bertan estreinatuko da. Usurbilen martxoaren 15ean ikus ahal izango ditugu film labur hauek, iluntzeko 20:00etatik aurrera Sutegin, NOAUA!ren eskutik.



“Ni ez naiz Txotxolo!” haurrentzako antzerkia Sutegin

Bi aktore Bb a i n a hamaika pertsonaia biltzen ditu Pok Produksioak eta Kris Barcok ekoiztutako “Ni ez naiz Txotxolo!” antzezlanak. 4-11 urte artekoei zuzendutako antzezlanean, bertan agertuko diren neska-mutilen eguneroko bakardadera gerturatzeko aukera izango da. Modu “alai”, xeble eta dibertigarri batean. Haurren nahi eta ezinak, barne hutsuneak, haien gogoak... taularatuko dituzte. Musika eta dantzek lagunduta. Baita dekoratu erakargarri eta jantzi ikusgarriek ere.



Usurbilgo Udalak antolatutako ekitaldirako sarrerak aldeztatik 3 eurotan eskura daitezke Oiaro kiroldegian. Takilan, egunean bertan, 4 euroren truke. Emanaldia igande honetan da, martxoak 11, arratsaldeko 17:30ean Sutegin.

Datorren astean, Mikel Urdangarin eta Kirmen Uriberen saioa

Korrika Kulturalaren aitzakia-ekin, Etumeta-AEK euskaltegiak Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe ekarriko ditu Sutegira. Portukoplak izenburupean, itsasoarekin lotutako bertso zahar eta berriak zuzenean irakurri eta abestuko dituzte. Horietan, naufragio, sirena, baleazale eta portuetako emakumeak agertuko dira. Martxoaren 16an, ostiralean izango da, gaueko 22:00etan. Sarrerak aldeztatik 5 euroren truke eskura daitezke Txiribogan.

TXOKOALDE

IMANOL GOENAGA

Garraio publikoa



Gogoan izango duzue duela aste batzuk Galardiko autobus geltokian izan zen istripua, auto batek geltokian zain zegoen emakume bat kolpatu zuen. Ez da lehenengo aldia, eta horrexegatik konpontzen hasteko garaia dela iruditzen zaigu.

Garraio publikoa Txokoalden negargarri dagoela deritzogu. Batetik, auzoa erdi erditik (hiru pasonibel, bakarria barrerarekin) zeharkatzen duen eta batere geratzen ez den tren bat daukagu. Bestetik, auzotik urrun samar eta egoera tamalgarrian aurkitzen den autobus geltoki bat.

Autobusa (trena ez bezala), zuk eskatuz gero, geratu behintzat bi norantzetan geratzen da. Norantza batean "markesina" antzeko bat daukagu, baina bertan esertzen bazara, ez duzu autobusik hartuko, ez baituzu hura noiz datorren ikusiko, eta ikusten duzunerako berandu izango da. Beste norantzian aldiz ez dago ezer ez, paretean ordutegia, horixe bakarrik. Horrez gain, jaisteko edo zain egoteko lekua bi aldeetan oso arriskutsua da.

Auzotar guztiontzat daukagun garraio publikoko zerbitzu bakarria da eta ez dago ez oinezkoentzako pasabiderik, ez zebra biderik eta ez "zinkuentarik" ere.

Mila esker Euskotren, garraio publikoa horrela bultzatzeagatik.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Hormak hitz egiten dutenean



Etxeko ataria igaro ondoren, eskubira begiratu eta hiru kartel paretean. Bakoitzak bere deia, bere mezua. Behera joan ahala, kioskoan, dena kartelez inguratuta. Okindegi inguruan, orain dela hiru aste ospatu zen Santa Ageda eskerako deia, naranja bizi batean, edo etxe bat alokatzeko eskaera. Etxe bueltan dagoen horma berdean berriz, pasatako kontzertu baten kartelen hondarrak, edo manifestazio batera joateko deia, hizki handi eta bizietan. Dema plaza inguruan, buruak eskuin aldera egingo du ia zer berri esaten duten, kartel zaharren artean lekua egin duten berriek.

Batzuetan kalean goazela, bakardadean gure pentsamendu artean, paretetako hitza, dei eta mezuak pentsamendu horietatik ateratzen gaitu eta besteen kezka, mundua, poza eta asmoak, ezagutzen ditugu.

Beti ezagutu ditugu hormak kartel eta propagandaz estaliak, eta denok ibiliak gara. Baina, zergatik ipintzen dira paretetan? Beste tokirik ez dagoelako? Eta herrian lau edo bost leku finkotan panel dexente batzuk jarriko bagenitu, lehengo ohiturekin jarraituko genuke? Behar bada ohitura kontua da ere mezu horietan erreparatzea.

KALEZAR

JOSEBA PELLEJERO

Bueno ba...



Ia ia hamar urte daramatzat kalejiran bi hilabetean behin gai bat jorratuaz. Bateko sagardo kontuak, elkarte ingurukoak, Harane futbol zelaia (orain inoiz baino berriago), Aranerreko ibilaldiak... eta atsedeen txiki bat hartzeko beharrez nago. Ez da izaten lan handia eta gainera ondo etortzen zaigu tarteka idaztea, ez baitut ohitura handirik. Orain ikusiko dut jendeak nere idatziak irakurtzen zituen edo ez. Hala ere gai bat interesgarria iruditzen bazait, zin dagizuet nere argazkia azalduko dela gaur bezala. Elkarren berri izango dugu. Mila esker.



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Jaiak, errealitate edo utopia?

Kaixo lagun guztioi! Aste honetako kronika pil-pilean dagoen gaiari eskaini nahi diot. Ez dakienarentzat, azken egunetan Atxegaldeko festak berreskuratu eta martxan jartzeko gogoia agertu duten zenbait gazteren berri izan dugu noaua.com webguneko foroan. Bertan egitasmo honen alde agertu diren hainbat pertsonen euren iritzia eta proposamenak idatzi dituzte eta hasiera batean badirudi jende mordo dagoela gure auzoaren alde lan egiteko.

Atxegaldetarra eta gazte naizen aldetik NOAUA!k zuekin komunikatzeko eskeintzen didan txoko honetatik deialdia luzatzen dizuet zuei guztioi: auzoko gazte zein helduei, baita garai batean egiten ziren festa mundial haiek sortzeko, prestatzeko eta bizitzeko aukera izan zenutenoi ere, zuen laguntza oso baliagarria izango bailitzateke... Bileraren bat egiten bada azal zaitezte eta ea denon artean errealitate bihurtzen ditugun Atxegaldeko festak.

Oso proiektu polita dela deritzot eta gustora hartuko dut parte bertan, beti ere gaiak eskatzen duen seriotasun eta lanerako gogoia kontuan hartuz eta helburua ondo pasatzea dela ahaztu gabe.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Zebra bideak falta ditugu



Alergia garai honetan horiz tintatu zaigu auzoa!

Batzuentzako bizipoza ematen digun sasoia, torturaren urtaroa bihurtu daiteke besteentzako. Aurten polenaren kopurua gorantza doa eta nahiz eta gero eta botika eraginkorragoak izan alergikoentzat egun zailak iritsi dira. Animoak bidali nahi dizkiet guztiei.

Eta orain gaiaz aldatuz, auzoko beharrei erreparatzen jarrita honakoa ikus genezake. Askotan, guregan eragina duten gauzetan bakarrik konturatzen gara eta oraingoan ere antzeko zerbait gertatu zait. Gure auzo lasai honetan, niretzat eta uste dut auzokide askorentzako, garrantzitsuak diren zebra bideak falta dira. Egia da, auzoaren sarreran, badaukagula baina auzoaren barrukaldean ez dira inondik inora azaltzen. Kotxe kopurua handitu dela ezin ukatu eta auzoan zehar segurtasunez ibiltzeko beharrezkoak iruditzen zaizkit. Ume kotxe batekin kotxe artean ibiltzea ez da oso segurua ez?

Azkenik, norbaitek auzoko berrietaz idazteko gogorik badu NOAUA!tik pasatzeko gonbitea luzatua dauka. Kolaboratzaile faltan gaude Santuenean eta denok zerbait esateko badugunez hemen duzue aukera.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Aldaketa klimatikoa



Konturatzerako martxoa etorri eta udaberria ere gainean izango dugu eta batzuek dagoeneko jada Aste Santuko oporren esperoan izango ditugu. Gauzek horrela jarraitzen badute aurtengo Aste Santua udaren parekoa izan liteke eguraldiari dagokionez behintzat.

Adituak hasi dira dagoeneko aldaketa klimatikoaz hitz egiten, eta ez da txantxetako gaia; ez horixe! Gure gizartean ditugun hainbat ohitura aldatu beharra dago... Baina aldatzarekin hastea gutako bakoitzarengan dago. Hitz egitea erraza suertatzen bada ere, ez da hain erraza gure hitzak ekintzetan gauzatzea. Asko da egiteko dagoena... Eta asko da ere jokoan dagoena: gure ondorengoei utziko diegun ingurunea eta zor ekologikoa hain zuzen ere!

Denok gara maila batean edo bestean egungo egoeraren erantzule; eta erantzule garen aldetik zerbait egiten hasi beharrean gaude. Hasteko arazoaren garrantziaz kontzientzia hartu beharrean gaudela deritzot, eta murgildurik gauden gizarte mota ikusirik... Ez da lan erraza honako hau. Beraz, norberak ikus dezala.... Asko da jokoan dagoena.

AGINAGA

M^AANGELES ARRUTI

Aingeru Goardako eguna

Aspaldiko partez Ibaetako Urrezti Auzora joan ginen Larbaingo etxeko-andre den M^aAngeles Alkaiaga eta bere alaba Josefinarekin. Eguna ederra suertatu zitzaigun eta oso ondo pasatzeko aukera izan genuen.



Larbaingo amak, laurogeigarren urteurrena zuela eta ospatzeko aitzakian joan ginen eta gogoan izateko modukoak izan zituen gainera. Lehenbizi kapilara bisitatxo bat egin eta ondoren Andoni Egaña, Irazu eta beste bertsolari gazte batzuekin topo egin genuen. Baita argazki bat atera ere. M^aAngelesek ilusioz hartu zuen eta oroigarri ederra geratu zaio. Hurrengo urtean ospatzeko gai izan gaitezela.



ZUBIETA

DENIS ELORZA

Estu

Estu bilduta, zubietarrok lepo bete genuen larunbatean autobus berde bikoitza eta Hegoamerikako trolebus gainkargatuen pareko irudia eskaini.

Horrelako jende-pilaketetan ohikoak dira algarak eragiten dituzten ateraldiak eta txantxak baina larunbatean Donostiarako joanean ez zen horrelakorik izan. Estutasun aurpegiak ziren nagusi, ez tragediazkoak, baina bai kezka irudikatzen zutenak. Zubietarako etorrian, berriz, sosegu handiagoa eta umorea.

Tartean zer? Bada, beste behin, estu hartu genituela agintariak, indar erakustaldia eman genuela, Zubietaren indarra eta bizinahia erakutsi geniela, zaborren kudeaketari dagokionez ere agintariei Gipuzkoa modernoa eraikitzeke exijitu geniela.

Kolore asko izan ziren manifestazioan, baita zubietarrok autobusean ere. Larunbatekoak hori ere lortu zuen, herria trinkotzea eta gure arteko harremanak estutzea. Eta horrek indarra ematen du, indar handia eman ere.



Lan munduko ateak irekitzen

INEM-ek eta Usurbilgo Udalak sinatutako hitzarmenaren ondorioz, enpleguaren arloko lau programa jarri ziren abian pasa den udazkenean. Hauen bidez, bederatzi herritarrei sei hilabeteko lan kontratua sinatu zaie. Parte hartzen ari diren lan programari buruzko irakasgaiak jaso eta arlo teorikoa egin beharreko lanetan aplikatzeko aukera dute.

Lan munduari lotutako estatistika datuek diotenez, langabetu poltsa handienetako bat emakumeek osatzen dute. Usurbilen eta herritik kanpo, langabetuaren profila emigranteekin batera, emakumeek irudikatuko lukete. Hori dela eta, badira lan-mundurako bidea egiten laguntzen dieten hainbat ekimen. Langabezian dauden hainbat herritarrei haien kualifikazioa hobetu eta kurrikuluma osatzen laguntzen dietenak kasu.

Esaterako, INEM enplegu erakundeak Usurbilgo Udalarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz abian diren egitasmoak. Une honetan, herriko 9 langabeturi irakaskuntza teorikoa jaso eta ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eman diete. Hori guztia lan kontratu baten barne. Igaro den udazkenetik hasita, datorren udaberrira arte, sei hilabeteko kontratua sinatu zitzaie. Lanaldi erdi edo osokoak. Egitasmo honetara, guztira, 117.454,02 euro bideratu dira.

Langile eta ogibideen banaketa honakoa da; etxez etxeko laguntzarako bi geriatriako laguntzaile, landa eremuko herritarren ongizate beharren azterketa egiteko teknikari bat, etxe sozialak erreformatzeko bi igeltsero laguntzaile eta ofizial bat eta azkenik, gune berdeak edota parkeak zaintzeko hiru lorazain laguntzaile. Langileek ez dituzte lanbide horretan dagoeneko lanean ari direnak ordezkatzeko; haien eginbeharrean lagundu baizik.

Lorzaintzan trebatzen

Gure inguruko parke, zelai edota bide bazterrek txukundu ederra hartu dute azken asteetan. “Hori urtero egingo balitz, garbiago egongo litzateke.”, gogoratu du lorzaintza lanetan dabilen



AMAGOIA, ARAGELI ETA MARI ANGELES, HAIEN LAN EGUNETAKO BATEAN. IRUDIAN, BIDE BAZTERREKO BERDE GUNEA TXUKUNTZEN.

Amagoia Zinkunegik. Cecilia Gonzalez eta Mari Angeles Abali bezala, pasa den urrian sei hilabeteko lan kontratua sinatu zitzaie. Ordutik, “Gune publikoen mantenua eta naturaren kontserbazioa” izeneko lan programan parte hartzen ari dira.

Goizean goiz hasten da haien lan eguna, goizeko 7:30etan. Ordu eta erdiz, Ametza Larrañagaren eskutik gaiari lotutako irakasgaiak jasotzen dituzte. Ondoren, lanerako arropa jantzi eta ikasitakoa lanean aplikatzera doaz. Zubieta, San Esteban edota Troia aldeko bide bazterrak edota Oria ibai ertzak garbitzen aritu dira. Edozein eguraldi eginda ere hortxe aritzen dira. Aurten, nahiko negu giro goxoa egokitu zaie, pare bat elur egun eta eurite egun batzuk kenduta. Areriorik handiena hala ere izotza izan dute, haien esanetan, “izozteek lurra erabat gogortua uzten baitute”.

Bizitzen ari diren lan esperientziatik gaiari buruzko ezagupena da gehien baloratzen duten aspektuetako bat. “Lehen zuhaitz bat zuhaitza besterik ez zen. Orain, ordea, ingurugiro arazoetaz jabetzen gara”, adierazi dute. Horietako bat, herriko hainbat txokotan aurki daitekeen zaborra; hala nola, ibai edota errepede ertzetan, parke eta berde guneetan... Herriko hainbat txoko garbiketaren beharrean, baina horretarako

behar adina langilerik ez. “Usurbilen lorategi asko daude eta lorezain gutxi. Lore zainak falta dira”, adierazi dute.

Lurrean landatutakoa edota herrian egindako mantentze lanak beren emaitzak izan dituzte. Hiru langileek horiek ikusteko aukera dute. “Landatutako arrosadian begira zoaz kalean ia noiz loratzen duen, egindakoa baloratzen zoaz”, aipatu dute. Ikusi bakarrik ez, lan orduetan ere, hitz onak sarritan entzuten dituzte. “Jendeak ere asko eskertzen du egindako lana”, erantsi dute.

“Guk ere egin dezakegu”

Emakumeek ere aipatutako ezereginetarako gaitasuna dutela argi dute eta horrela erakusten ari dira gainera. Baina gaitasuna eta lanerako gogoia izan arren, egungo lan munduak bestelako errealitatea erakusten du; gizonezkoak nagusi dira lanbide hauetan. “Emakumeak gutxi estimatzen dira”, adierazi dute lorzaintzean. Pozik daude, eskaini dieten aukerak duten gaitasun hori erakusteko balio izan dielako. “Ia brigadan emakume bat ere sartzen den, garaia baita”, aipatu dute. Apirilera arte lanean ikusiko ditugu hiru emakumeak. Ia hortik aurrera zortea duten.

“Ondo ari dira lanean”

Ametza Larrañaga, lorezaintza lan egitasmoko koordinatzailea

Lehenengo aldiz, abian dagoen lorezaintza lan egitasmoko koordinatzaile eta irakaslea da Ametza Larrañaga. Programaren nondik norakoak azaldu dizkio NOAUA!ri.

NOAUA! Egitasmo honetan ardura bikoitza duzu, ezta?

Ametza Larrañaga. Egingo zituzten lanak zuzendu eta teoria irakastea izan zen proposatu zidatena. Orduan, onena egunero teoria pixka bat eman eta gero, hori praktikara eramatea izango zela pentsatu genuen; ikasitakoa, egiten ditugun lanetan aplikatzea. Horretarako guztirako, lau emakume gaude.

N. Zeintzuk dira egitasmo honen ardatzak?

A. L. Gure lan programa naturaren berreskurapenaren barruan kokatzen da; horien artean daude parkeak, zonalde berdeak... Ez bakarrik Kaxkokoak baita herriko ezberdinetakoak ere. Batez ere, natura berreskuratu eta zaintzea litzateke helburua. Lan horien barruan, gehienbat garbiketara lanak egongo lirateke. Hor puntu batzuk badaude garbiketara lanen beharrean zeudenak eta horiek programaren barruan jorratzea egokitzat jo ziren.

N. Egunero, teoria eta praktika uztartzen duzue?

A. L. Garrantzitsua den teoria ematez gain, praktika ere egiten dute. Askotan, praktika edota teoria baka-



HIRU EMAKUMEEK LAN EZBERDINAK EGITEN DITUZTE; LOREZAINZA ETA GUNE BERDEEN GARBIKETA LANAK.

rik ematen baita. Sei hilabeteko lan kontratua dute, baina lorezaintzaren kasuan, urtebetera luzatzea litzateke egokiena, urtebete naturala ikusteko. Ideialena, loreen ziklo osoa ikustea litzateke. Adibidez, neguko eta udako kimaketa daude. Kasu honetan, negukoa ikusi dute soilik; eta garai honetan loretan diren landareak.

N. Lorezaintzari lotutako edukiak nagusi?

A. L. Espezieak eman ditugunean, asko ikusi ditugu baina ez guztiak. Ikusitakoak identifikatzen saiatu gara. Orain neguan gaude. Horregatik, horietako asko argazki bidez ezagutu ditugu. Espeziez gain, lurrari edota uraren funtzioa ere landu dugu. Beharrezkoa diren mantenimendu kontuak loretokietan edo gune berdeetan.

N. Lan hauek ez daude emakume-

en hain eskura?

A. L. Bai. Adibidez, errepide bazterrak garbitzea. Zer ondo emakumeek egin ditzaketela, indarra eskatzen duen lana baita. Ikusi da egin dezakegula eta oso ondo ari direla gainera. Baina bizitako esperientziagatik, horrelako lanetan aritzeko emakumeek aukera gutxiago dute. Gu geu gara askotan horrelako lanak egin ditzaketela erakusten diegunak, baina askotan irakasteko aukerarik ere ez zaie eskaintzen.

N. Zer moduz moldatzen zarete?

A. L. Lau emakume izan arren, eta ezberdinak izan arren, hartu eman ona dugu eta lana ondo egiten ari dira. Azkenean, lan hauetan taldean lan egiten jakitea oso garrantzitsua da eta hori ondo egiten ari dira.

ARITZ GORRITI

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Ofiziala - Guztogai

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14 ☎ 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

GRSA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea - 943 383 348 - 609 888 021

Olatz Altuna, 18/98 auzian epaitua

“Oso inportantea da Bilboko manifestazioa”

Datozen egunetan amaituko da ahozko epaiketa. Beraz, azken txanpan da 18/98 bezala ezaguna den kasua. Egin, Ekin, Joxemi Zumalabe Fundazioa, Xaki eta Orain dira epaiketa erraldoi honen bost piezak eta guztira 56 pertsona dira epaituak. Tartean da Olatz Altuna usurbildarra. Epaietan zehar ikusi da perituek zenbait akusazioekin atzera egin behar izan dutela, Olatzek adierazi digun bezala, agerian utziz “zein zentzugabeak diren esandako gauza asko”. Hala ere, fiskalak 7 urteko espetxe zigorra eskatu du berarentzat.

NOAUA! Laster amaituko da ahozko epaiketa. Zein izango da datozen aste-tako prozedura?

Olatz Altuna. Epaietako hiru aldeek, fiskalak, akusazio partikularrak (AVT) eta defentsak, informe edo txosten batean garatu eta argudiatu behar dute eskaera, eta argudio horiek frogekin sostengatu. Fase hau ahozko azalpen batean oinarritzen da. Fiskalarena pasa da, baita akusazio partikularrarena ere, eta aste honetan gure defentsa arituko da gure txostena egiten. Hau guztia eta gero, azken fase bat faltako litzateke, “azken hitzak” bezala ezaguna den fasea. Berrit inputatuei nahi dutena esateko aukera ematen zaien fasea.

N. Fiskalak zazpi urteko espetxe zigorra eskatu du zuretzat eta baita Zumalabe piezako gainontzeko kideentzat (Pepe Uruñelarentzat izan ezik). Fiskalari eskaera hori entzutea kolpe handia izango zen, ezta?

O. A. Bai, kolpe handia izan zen. Batez ere, epaiketa nola joan den ikusita. Nahiz eta guk askotan esan eta ikusi erabakia ez dela juridikoa izango, politikoa izango dela. Hala ere, gure apustua defentsa tekniko-juridiko bat egitea izan zen. Horregatik pasa dugu ia urte eta erdi, horrek suposatzen duen guztia. Epaiketa nola joan den ikusi dugu denbora honetan guztian. Beraiek izendatutako perituek zenbait gauzekin



2005EKO AZAROAN HASI ZEN EPAIKETA ETA, ORDUTIK HONA, EGUN ASKO IGARO BEHAR IZAN DITU MADRILEN.

atzera egin dutela ikusi dugu, zein zentzugabeak diren esandako gauza asko... Hain nabaria geratu da dena epaietan zehar, akusazio horiei eustea ez zela posible pentsatzen hasi ginela. Baina fiskalak kolaborazio akusazioa mantentzen du eta gero eta garbiago ikusten da defentsa juridiko horrek ez duela asko balio. Beste esparru batean erabakiko dela gure sententzia. Orain oso argi daukat erabakia politikoa izango dela.

N. Bi aurrekari badira. Batetik, Jarrai, Haika eta Segi erakunde terroristatzat hartu dituzte eta auzipetuei 6 urteko kartzela zigorra ezarri zaie.

Bestetik, Egunkariaren auzian, fiskalak kasua artxibatzea eskatu du.

O. A. Nire ustez oso ondo islatzen du une honetan dagoen errealitate politikoa. PSOE kudeatzen ari den errealitate politikoa, alegia. Egunkaria auzian, esate baterako, fiskalak keinu bat egin du, baina, erne, oraindik ez da kasua artxibatu. Gazteen kasuan, berriz, egurra eman du bidegabeki. Norabide garbi bat ez da ikusten. Gu nola harrapatuko gaituen ez dakigu, baina oraingoz ez da ikusten norabide argi bat. Keinua solteetatik areago PSOEk bere jokabidea argitu egin beharko luke. Une honetan ez dago

“Pertsonalki, urduriago nago orain”

N. Maila pertsonalean, 2005eko azaroan baino hobeto edo okerrago ikusten al dituzu gauzak?

O. A. Ni pertsonalki urduriago nago orain. Akaso sententzia hurbilago dagoelako. Hasieran, erronka epaiketa bera prestatzea zen, nola uztartu lana eta familiarekin; lehentasunak horiek ziren. Une horretan, nekez ikusten nuen nire burua kartzelan. Baina fiskalaren eskaera entzun eta

gero, ikusten dut aukera hori, presentean dago.

N. Zure burua espetxean ikusten al duzu?

O. A. Gerta liteke. Ikusitakoak ikusi eta gero, tamaina honetako astakeriak aurrera egiten badu... Eskubide zibil eta politikoen urraketak behin-betiko etenik ez badu, gu ez ezik beste asko ere arrisku horretan egon litezke.

jakiterik Aznarren aroko bidetik alden-
tzeko borondaterik eta adorerik bada-
goen.

N. Larunbatean Bilbon egingo den
manifestazioa oso garrantzitsua izango
da zuentzat. Mobilizazio horretan itxa-
ropen asko jarrita izango dituzue.

O. A. Oso inportantea da. Gure arte-
an askotan esaten dugu epaiketa Euskal
Herrian irabazita dagoela. Jaso dugun
babesa handia izan da. Esate baterako,
duela hiru aste Bilboko Arriaga antzo-
kian egindako ekitaldian eta autoinkul-
pazio kanpainan ikuspegi desberdineko
jende askok hartu du parte. Martxoaren
10eko manifestazioan hori ikusi ahal
izango da.

OLATZ ALTUNA

“Nola esan daiteke gure
herriko dinamika politiko eta
sozialetan parte hartzeagatik
delitugile garela? Benetan oso
kezkgarria da egoera hau”

Jendea sentsibilizatuta eta amorratuta
dago eta zerbait egiteko gogoz.
Guretzat eta gainontzeko sumarioen-
tzat oso garrantzitsua da babes hori
sentitzea. 18/98+ plataformak eskubide
zibil eta politikoen aldeko aldarrikape-
na egin du hasieratik eta uste dut oso
ondo ulertu dela hori. Nola esan daite-
ke gure herriko dinamika politiko eta
sozialetan parte hartzeagatik delitugile
garela? Euskal Herriaren aldeko edozein
jarduera konprometitu kriminalizatu
dezakete ezer eduki gabe, inongo frogar-
rik gabe. Benetan oso kezkgarria da
egoera hau eta nik uste dut jendeak oso
ondo ulertu duela.

IMANOL UBEDA

Defentsaren esanetan, 18/98 epaiketa "politikoa" izan da



1 8/98 epaiketako defentsa astele-
henean hasi zen bere ondorioak
azaltzen. Aste honetan zehar, 52
auzipetuen abokatuak ahozko infor-
meak aurkeztuko dituzte epailearen
aurrian. Jose Mari Elosua defentsak
abokatuak astelehenean bertan adierazi
zuen, "Epaiketa politikoa izan da,
hasi eta bukatu arte". Haren ustez, pro-
zesu honek Jose Maria Aznar
Espainiako Gobernuaren presidentea
zeneko garaiarekin lotura du. Aznarren
gobernuak ezker abertzalearen sare
politiko eta sozial dena "suntsitu" nahi
zuela gogoratu du Elosuak eta, beraz,
auzi honek "butzada politikoa" dauka-
la. Epaiketa ezker abertzalearen kontra-
koa dela esan du abokatuak, baina
baita "oro har, sistemaren kontra" doa-

zenen aurkakoa ere. "Epaiketa ikus-
puntu okerrean oinarritzen da", esan
zion Elosua abokatuak epaimahaiari.

Zumalabe Fundazioa, herri mugimenduen sustatzaile

1996ko apirilean jaio zen Joxemi
Zumalabe Fundazioa. Sorreratik gaur
arte, fundazio honen helburu orokorra
herri eta gizarte mugimendua eragitea,
bultzatzea eta aholkatzea izan da.
Euskal Herriko herri eta gizarte mug-
imenduan kokatzen diren pertsona,
elkarte, antolakuntza eta mugimen-
duei zerbitzua emateko asmoz sortua.
Olatz Altunak garai batean fundazioa-
rentzat egin zuen lan eta gaur egun
fundazioko patronatuko kide da.

Bilbora joateko autobusa antolatu da

Usurbilen ere bada 18/98+ plataformaren baitan lanean dabilen taldea.
Larunbat honetan Bilbon egingo den manifestaziora joateko, autobusa
antolatu du. Arratsaldeko 15:30ean abiatuko da autobus hori Bordaxoko erroton-
datik. Izena emateko, ohiko tabernetan topatuko dituzue orrialdeak.
Manifestazioa Bilboko La Casillatik abiatuko da, arratsaldeko 17:00etan.

**MIKEL
IZAGIRRE**
ELEKTRIZITATEA
943 365 095
609 068 111
GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Aurrerantzean, hilean bitan etorriko da etxeko hondakin arriskutsuak biltzen dituen ibilgailua

Martxo hasieratik, San Markos Mankomunitateak etxeko hondakin arriskutsuak biltzeko zerbitzua indartu du. Ordutegi zabalagoak, biltzeko leku eta baita egun gehiago ere. Jada, hil honetatik aurrera, Usurbilgo erdigunea bitan bisitatuko dute bi furgoneta berriek. Horrekin batera, herriko auzoetan eta Urbil merkatalgunean ere hileroko erronda egingo dute. Mankomunitateak hondakinak furgonetetara elkarren artean nahastu gabe eraman behar direla ohartarazi dute. Hamar udalerriek osatzen duten eremutik, herritarren parte hartzea eskertzeaz gain, hondakin gutxiago sortzeko aukerarik onena modu arduratsuan kontsumitzea dela berresten dute.



BI IBILGAILU BERRI JARRIKO DITU MARTXAN SAN MARKOSEK.

Etxean ditugun hondakin asko zabor poltsara bota ordez, bada beste alternatibarik; Puntu Berde Mugikorrera eramatea. Martxo hasieratik, aipatutako hondakinen gaikako bilketa zerbitzu egunak bikoiztu ditu San Markos Mankomunitateak. Gainera, bi ibilgailu berrik jasoko dituzte etxean izaten diren eta arriskutsuztat jo daitezkeen hondakinak. Ekimen horretarako espreski prestatutako furgonetak dira.

Asmoa, ingurumenean kalte gutxiago eragitea, zabortegean tratatu beharreko hondakin kopurua murriztea eta lehen-gaietan aurrezte da.

Bi furgonetek bilketa lanak egingo dituzte Mankomunitatea osatzen duten herri eta auzo guztietan; Donostian,

Astigarragan, Errenterian, Hernanin, Lasarte-Orian, Lezon, Oiartzunen, Pasaian, Urnietan eta Usurbilen.

Horietan guztietan jasotako hondakinak baimendutako kudeatzaileen esku uzten dira.

Bestetik, gogoratu, arriskutsuztat jo daitezkeen etxeko hondakinak leku egokian utzi behar direla. Adibidez, sendagaiak farmazietan. Aparatu elektronikoko edo elektriko berriak erostean, zaharra, dendarara bertara eraman daiteke.

Hondakinak nahastu gabe

Bi ibilgailu berrik jasoko dituzte etxean izaten diren eta arriskutsuztat jo daitezkeen hondakinak. Ekimen horretarako espreski prestatutako furgonetak

dira. Barruan, hondakin mota bakoitzak bere eduki ontzia izaten du.

Horregatik, aldeztetik jarritako ordu, egun eta lekuetan izango diren ibilgailuetara hondakinak eraman nahi dituenak, mota ezberdinetakoak direnak elkarren artean nahastu gabe utzi behar ditu.

Gai honi buruzko informazioa etxeko postontzietara ailegatuko da; 116.000 liburuxka banatuko dira Mankomunitate osoan. "Birziklatzea baino hobea da prebenitzea" izenburupean, zer nolako produktuak erosi eta kontsumitu aholkatzen da.

ARITZ GORRITI

San Markoseko ibilgailuak bilduko dituen hondakinak

Sukaldeko olioak	Pintura bereziak, disolbenteak	Lanparak, fluorezeszentek...	Etxetresna elektriko txikiak...	Eskuko telefonoak
Aerosolak, lakak	Kolak, pegamentua	Kotxeetako olioak, bateriak...	Tostadorak, irriak...	Argazki kamarak, materiala

Garbiketa produktu kimikoak	Kolak, pegamentua	Termometroak	Depilatzeko tresnak	Material informatikoa
Erradiografiak	Herbizidak, intsektizidak	Inprimatzeko tonerak, kartutxoak	Jostailu elektriko eta elektronikoak	CDak, DVDak

Birziklatzeko aukera gehiago izango ditugu aurrerantzean

Lehen hilean behin; martxotik aurrera, bitan etorriko dira Mankomunitateko bi furgoneta berri etxeko hondakin arriskuak jasotzera.

San Markos Mankomunitateak hil honetatik aurrera hondakin mota ezberdinen bilketa indartuko du. Orain artean, hilean behin hurbiltzen zen Mankomunitateko furgoneta. Martxotik aurrera bitan bisitatuko du herri guinea.

Martxoaren 28an

Hil honetako lehen bisita martxoaren 7an izan da. Hurrengo hitzordua, hilaren 28an izango da. Goizeko 9:00-13:00 artean. Urbil merkatalgunean, hilean bitan izan ohi da ibilgailua.



MARTXOAREN 28AN ETXeko HONDAKINAK BILTZEN DITUEN IBILGAILUA IZANGO DA KAKKOAN.

Arduratsu izateko hainbat aholku

-Kontsumo txikiko bonbillak eta fluoreszenteak gehiago iraun eta eragiten dute.

-Jostailu, aparatu elektriko eta elektroniko kasuan, lehenetsi sare elektrikora konektatzen direnak; gero, berriz kargatzeko bateriak dituztenak eta azkenik, berriz kargatzeko pilak dituztenak.

-Etxea garbitzeko, osagai naturalekin egindako produktuak erabili.

-Berriz bete daitezkeen inprimagailu-tonerrak erabili.

-Ur-pinturak aukeratu.

-Ez dabilzan etxetresnak eta aparatuak konpontzen saiatu, bota baino lehen.

-Optimizatu zure informatika-ekipoaren prestazioak bere elementuak mantenduz. Behin baino gehiagotan grabatu daitezkeen CDak edota pendrive-ak erabili.

-Behar ez diren objektuak, beste eskuragai jarri, besteak beste www.merka2sanmarcos.org web-guneak eskaintzen duen aukera baliatuz.

TOKIAK	EGUNAK	ORDUAK
Pilotaleku atzean	Hileko lehen asteazkena	9:00-11:00
	Hileko azken asteazkena	9:00-13:00
Auzoetan	Hileko lehen asteazkena	11:00-13:00
Urbil merkatalgunean	Hileko laugarren eta azken larunbatak	11:00-14:00 15:00-19:00

**Oharra: bilketa eguna jai eguna egokitzen bada, ez da bilketa zerbitzurik izango.*

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Industria eta Irabarkeriako
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

OSU

943 371 954
USALDEA POL.26-2-URURBIL

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 • ASTEASU
☎ 943 69 68 52 • 620 800 186

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

MAHUKA

ETXEBESTE KALEA, 3 • 943 361 102

Hemen aurkituko duzu gizen eta emakumezkoen MODAKO ARROPA

Jendetza bildu zen Donostian

Milaka herritar bildu ziren pasa den martxoaren 3an Donostiako kaleetan errausketaren aurkako manifestaldian. Bozgorailuetatik entzun zitezkeen hondakinen tratamenduari buruzko abestiaren doinupean hasi zen. Traktore, zaldi edota tximinia erraldoi batek zabaldu zion bidea atzetik zetorren herritar uholdeari. Errausketaren aurkako aldarriak ikusi eta entzun zitezkeen bidean zehar herriz herri sortzen joan diren plataformek esekitako pankartetan eta bertan bildutakoan ahotan. Anoetatik abiatu eta komunikatu irakurketekin Boulevardean amaitu zen ekitaldia. Manifestaldiak alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialen babesa jaso zuen. Anoetara joateko garraio bide publikoak ere leporaino bete ziren.



“ERRAUSKETARIK EZ. EZ HEMEN, EZ INON”, “ALTERNATIBAK DAUDELAKO” ETA ANTZEKO ALDARRIEK GIPUZKOAKO HIRIBURUKO KALEAK HARTU ZITUZTEN.

Uria&Menendez abokatu bulegoa kontratatu du Usurbilgo udalak

Usurbilgo udalak bide judizialari heltzea aipatzen zuen, Donostiako udalak errauste planta Zubietan jartzea erabaki zuenean. Norabide horretan, udalak pauso berri bat eman du; Uria&Menendez abokatu bulegoaren zerbitzuak kontratatzea. Asesoramendua eta gaiari buruzko txostenak erredaktatzeko.

Txingudin errauste planta egiteko asmoa izan zenean, aipatutako proiektuari aurre egiteko inguru haietan sortutako Medikuen Batzordearekin lan egin zuen.

Orain, Donostiako udalak errauste planta Zubietan eraikitzea erabaki ostean, Uria&Menendez abokatu bulegoaren zerbitzuak kontratatu ditu Usurbilgo udalak; Zubietan eraikitze asmoa dagoen errauste plantaren inguru-

ruko txostenak egin eta asesoramendua jasotzeko. Gainera, administrazioko edo bestelako instituzioetako teknikariek edo kideekin biltzea abokatu taldearen beste zereginetako bat izango da.

Abokatu bulegoa berehala lanean hastea aurreikusia dago.

30.000 euroko diru partida

Urte honi begira prestatutako udal aurrekontuen zati bat lan hauetara bideratzea aurreikusia zegoen; zehazki, 30.000 euroko diru partida.

2006an Europako abokatu bulego onena izendatua izan zela dio alkate Luis Mari Ormaetxeak helarazitako prentsa oharra. Udal gobernua osatzen duten alderdi politikoaren borondateari erantzunez, eta usurbildar gehiengoaren iritzia entzun eta gero hartu dela erabakia dio Ormaetxeak.

Urriatik aurrera, San Markosen ez da zabor gehiago pilatuko

Urriaren 1ean. Asko jota, San Markoseko zabortegia egun horretan ixteko asmoa agertu berri du Garapen Jasangarriko Diputatu Luis Mari Oiarbidek. Foru Aldundiak, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Mankomunitateek sinatutako elkarlanerako hitzarmenaren arabera, gradualki San Markosera garraiatu beharreko hondakin kopurua Lapatx, Sasieta eta Urtetara garraitzea aurreikusten da; orain, %10a, maiatzetik aurrera %50a eta uda amaierarako zaborren %100a.

Hala ere, hortik aurrera zabortegia- ren ixte lanek jarraituko dute. Baita datozen beste 30 urte iraun dezaketen zabortegiko kontrol lanek ere, bertan orain artean pilatutako hondakinen prozesu kimikoa ez baita berehalakoan etengo.

Igoera fasea jokatuko dute

Usurbil Kirol Elkarteko 1. Territorial mailako taldeak Euskadiko txapelketarako igoera fasea jokatzeko txartela lortu du. Pasa den igandean partida garrantzitsua izan zuten Oiardo kiroldegian Bergara liderraren aurka eta 27-20 irabazi ondoren mailaz igotzeko aukera izango dute.

Usurbildarrek ez zuten hutsegin partida guztiak irabazita zegoen taldearen aurka. Garaipena behar beharrezkoa zuten Ormaiztegiaren aurkako ligako azken partida baino lehen igoera fasea jokatzeko txartela ziurtatzeko eta hasiera hasieratik nagusi izan ziren Oiardo kiroldegian. Ohikoa baino jende gehiago bildu zen bertan eta zaletuen laguntzarekin garaipen bikaina lortu zuten.

Neurketa guztian zehar aurretik izan zen herriko taldea. Defentsa bikainarekin eta Sergio Montes atezainaren ekarpenarekin, bergararrek 5 gol bakarrik egin zituzten lehen zatian eta 10-5 izan zen lehen 30 minutuetako emaitza. Bigarren zatian hasieran aurkariak gerturatzeko imintzioa egin zuten, baina Antonio Castrok eta Jose Lorenzok zuzendutako taldeak ez zuen estuasunik pasa. Zortzi eta bederatziko goleko abantaila ere izan zuten eta azkenean 27-20 izan zen garaile Usurbil K.E. igandeko neurketa garrantzitsuan.



BERGARAKO TALDEAREN AURKAKO NEURKETAN 27-20 IRABAZI ZUEN USURBILGO TALDEAK.

Garaipen honekin igoera fasea jokatzeko txartela eskuetan dutela joango dira Ormaiztegi aldera azken partida jokatzera, 3. postuan dagoen bertako taldeak ez baitu sailkapenean usurbildarrek harrapatzeko aukerarik. Ondoren, Euskadiko txapelketa jokatu ahal izateko igoera fasea jokatu dute Gipuzkoan lehen postua eskuratu duen Bergara, Bizkaiko lehen hiru taldeekin eta Arabako talde onenarekin batera.

Jubenil mailako taldeak, berriz, Gipuzkoako txapelketa izango du jokotan datorren asteburuan Oiardo kiroldegian. Sailkapenean lidergoan dauden bi taldeak izango dira aurrez aurre azken hirugarren jardunaldian: Usurbil K.E. eta Ereintza Aguaplast.

JOSU ARANBERRI _____

Usurbildarrek Gipuzkoako trinketa txapelketako finalean

Andatzpe-Peña Pagolako pilota-ariak Trinketako eskuz binakako Gipuzkoako txapelketako finala jokatu dute larunbatean Irurako Trinketan. Enrike Huizi eta Mikel Landak osatutako bikoteak finalerdietako partida 40-24 irabazi zuten Billabonako Akelarre elkarteko Goikoetxea eta Altunaren aurka eta txapelketako azken norgehiagoka jokatzeko aukera izango dute.

Hernaniko pilotariak izango dituzte aurrez aurre txapela jokoan izango den partidaren, Oiagak eta Albarezek osatutako bikotea hain zuzen ere. Lehenengoa profesional izandakoa da eta bigarrenak, berriz, banakako trinketa txapelketan Enrike Huizi gainditu zuen duela gutxi.

Horrez gain, Mikel Landak ezingo du txapelketa honetako finala jokatu. Lasartearra kanpoan da egun horietan eta bere ordezkariak Jabier Santxok jokatu du Irurako Trinketan.

Honenbestez Huizi eta Santxo izango dira Andatzpe-Peña Pagolak iaz lortu zuen txapela berriz ere Usurbil aldera ekartzen saiatuko direnak.

Zubeldiatarrak lasterketekin hasi dira

Hasi da txirrindularitza denboraldia eta herriko bi txirrindulariak ere lehiari hasi dira dagoeneko. Joseba Zubeldia Valentziako itzulian izan zen eta hirugarren etapan 112 kilometro ihes eginda egon ondoren helmugarako 10 kilometro inguru falta zirela harrapatu zuten. Haimar Zubeldia, berriz, asteazkenean hasi zen Murtziako itzulian parte hartzen ari da. Bi txirrindulariek apirilaren 9tik 14a bitartean izango den Euskal Herriko itzulian egoteko aukerak dituzte.

Neskak eta jubenilak Harane futbol zelaian

Usurbil Futbol Taldeko emakumezkoen eta jubenilen taldeek Harane futbol zelaian jokatu dute asteburu honetan. Herriko neskek Lasarte-Oriako Ostadar taldearen aurkako "derbia" izango dute Kopako 3. jardunaldian. Pasa den asteburuan atsedendaldia izan ondoren lehiaketara itzuliko dira bi taldeak eta sailkapenean 3 punturekin berdinduta daudela kontuan hartuta neurketa polita ikusi daiteke Haranen.

Bestalde, 1. Jubenil mailako taldeak Tolosako Amaro taldea izango du aurrez aurre Haranen. Xabier Iraolak zuzendutako taldeak kopako azken bi

neurketak irabazi ditu, azkena pasa den larunbatean Michelinek Texas-Lasarte-Oriaren aurka, eta sailkapeneko 4. postuan kokatu da 9 punturekin. Tolosarrak, berriz, 7. postuan dira 3 punturekin.

1. Erregional mailako taldeak, berriz, partida zaila izango du Zumaian. Sailkapenean 3. postuan kokatuta dagoen Zumaia izango da asteburu honetako aurkaria. Hala ere, pasa den larunbatean Haranen Tolosari 4-2 irabazi ostean jaitsiera postuetatik irten dira behin behingoz eta ziur punturen bat eskuratzeko asmoz joango direla herriko jokalariek Zumaia aldera.

Udarregiko mendi taldekoek Mandubia inguruak bisitatu dituzte



Uda giroko eguna izan zuten Udarregi mendi taldekoek hilaren 4an antolatu zuten irteerara joateko. Ikastolako kideek Nuarbera autoz joan eta Urola-Kostako hainbat herri urez hornitzen dituen Ibai Eder urtegia inguratuz ibilaldi ederra egin zuten. Mandubia mendatera igo eta bertako bentaren ondoan bazkaldu zuten.

Horren ostean, ikasleak parkean jolasten zuten artean, gurasoak Kizkitza basiliza bisitatu eta bertatik dauden ikuspegiez gozatzeko aukera paregabea izan zuten.

Arratsalde partean, Beasainera jaitsi eta Usurbilerako bidea hartu zuten egunpasa egitera irtendako Udarregiko guraso eta ikasle taldeak.

Martxoaren 14, 23 eta 29an IT Txartela eskuratzeko aukera

Martxoan KzGunea arratsaldetan zabalik izango da; 16:00-20:00 artean. IT Txartela eskuratzeko azterketa egunak hilaren 14an, 23an eta 29an izango dira. Internet ikastaroa euskaraz hilaren 19tik 30era 18:00-20:00 artean. Horrekin batera, beste bi ikastaro eskaintzea aurreikusten da; irudi digitalen tratamenduari buruzkoa, euskaraz, hilaren 12tik 15era 16:00-18:00 artean eta Flashget ikastaroa, erdaraz, hilaren 26an ordu berean.

Bestalde, Herritar Txartela delakoa ere eska daiteke. Administrazio publikoarekin egin beharreko hainbat tramite ordenagailuz egiteko aukera ematen duen doako txartela. Horren bidez, bizitza laborala edota errolda agiria gisako dokumentuak eskura daitezke.

Martxoaren 30ean, Bertso afaria Andazpe elkarte

Martxoaren 30ean, gaueko 21:00etatik aurrera, Andazpe elkarte bertso afaria egingo da Bota Punttuba bertso eskolak eta Andazpe elkarteak antolaturik. Jexuxmari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak arituko dira kantuan. Txartelak 20 eurotan salgai Txiriboga eta Andazpe elkarte.



Eguneko goardiako farmaziak

Martxoak 8, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 9, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 10, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Martxoak 11, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 12, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 13, asteartea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 14, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 15, osteguna
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Martxoak 16, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 17, larunbata
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Martxoak 18, igandea
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani. 943 552087
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Ostiral honetan aurkeztuko dute Xomorronen liburua

Xa b i e r
Aranburu Xomorro usurbildar presoaren bertsoekin eta olerkiekin osatutako liburua aste honetan aurkeztuko dute Sutegi kultur etxean.



Liburuaren argitaratzean Usurbilgo Etxeratek, Bota Punttuba bertso eskolak, NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo udalak hartu dute parte. Ostiral honetan egingo da liburua aurkezpenean, hilak 9, arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Agenda !!

Martxoak 8, osteguna

- Ezker Abertzaleak bere herri programa osatzen hasteko bilera irekia Santueneko auzo lokalean, 20:00etan.

Martxoak 9, ostirala

- Korrika Kulturala. Karidadeko Bentaren saioa, 21:00etan Sutegin.

- Ezker Abertzaleak bere herri programa osatzen hasteko bilera irekia Zendoia tabernaren ondoko lokalean, 20:00etan.

Martxoak 11, igandea

- "Ni ez naiz Txotxolo!" antzerkia, 17:30ean Sutegin. Antolatzailea: Usurbilgo udala.

Martxoak 12, astelehena

- Ezker Abertzaleak bere herri programa osatzen hasteko bilera irekia Aginagako apaiz etxean, 21:00etan.

Jostailuak biltzen hasi da

Antxomolantxa Aginagako elkarte

Iaz, Aginagan sortutako Antxomolantxa elkarteak ludoteka, haurren aisialdi denboran eguraldi txarra egiten duenean jolasteko sortua da.

Baina materiala ez dute soberan. Horregatik, elkartetik herritarrei etxean izan eta erabiltzen ez dituzten jostailu, ipuin, puzzle... izanez gero, Eiza dendara eramatera dei egiten dute. Asmoa, material berria erosi beharrean alferrik dagoena erabiltzea da, duten aurrekontua ere txikia baita.

Bestalde, elkarteak martxoaren 24an Aginagatik igaroko den Korrika 15ean parte hartuko du. Egitarau berezia prestatu dute.



GABONETAN EGIN ZEN AGINAGAKO
LUDOTEKAREN INAUGURAZIOA.

Giroitze ekitaldiak Korrikaren atarian

Korrika 15 Usurbildik martxoaren 24ko iluntzean igaroko da. Giroitze ekitaldirik ez da faltako. Udarregi ikastolakoek Korrika Txikia ospatuko dute, bezperan, hilaren 23an. Bazkalostean, mailaz maila lekuko eta dortsal berezi eta guzti jantzita herriko kaleak zeharkatuko dituzte, euskararen alde.

Aginagan ere, Korrika

Euskararen aldeko lasterketa iristeko ordu batzuk baino faltako ez direnean, Aginagako Antxomolantxa elkarteak egitarau berezia prestatu du. 16:00retan film emanaldia izango da egoitzan bertan eta 18:00tan haurrentzako jokoak. Ordu bete beranduago, erromeria eta afari merienda antolatu dituzte. Gaueko 21:30etan denak prest izango dira Korrika 15-ean parte hartzeko. Aginagara ordu horren bueltan iritsiko baitira musika, euskararen aldeko oihiak eta noski, korrikalariak.

Udarregiko 6. mailako futbol taldea, andoaindarren zelaian lehiatzen



Udarregi ikastolako 6. mailako B futbol taldeak Andoainen Larramendi ikastolakoan aurka jokatu zuen pasa den asteburuko jardunaldia. Neurketaren lehen zatian, etxeakoak finago aritu ziren. 4 eta 0, lehen zatiko emaitza. Bigarren

zatian, usurbildarrak askoz txukunago ibili ziren. Aurkarien atean baloia lautan sartu zuten, baina ez zuten ezer egiterik izan. Larramendi ikastolakoak ez baitziren atzean geratu. Norvehiagokaren azken emaitza; 7-4.

ETXEBIZITZA

- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 678582665
- Sukaldari laguntzailea behar da Usurbilen. Interesatuak deitu 943370344
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610669335
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.

Lan-eskaintzak

- Astebukaeratan lan egiteko zerbitzari bat behar da. 943 36 67 10.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldez etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabilta 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.

- "Enciclopedia general ilustrada del País Vasco" Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Ondo zainduko duen norbaiti 3 urteko Setter Inglesa oparituko nioke. 645 735750.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664774024.
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679185102
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617242660 /apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordainetan !!



Zorionak Aizpuruatarrak!

Nereak martxoaren 2an eta Unaiek martxoaren 13an 24 urte beteta, ia afari eder batera gonbidatzen gaituzuen. Ez galdu zuen umorea. Zorionak laguneren partetik.



Zorionak Eneko!

Martxoaren 13an zure bederatzigarren urtebetetzea da.

Dagoeneko gizontxo bat egina zaude.

Ondo pasa eta muxu pila bat Oinatz eta gurasoen partez.



Laugarren hamarkadan aurrera baina umorea oraindik mantentzen duala, martxoaren 8an emakumeen egunaz gain, hire eguna ere badelako Zorionak Kerman eta pastak ekartzen badituk eskertuko diagu.



JAIOTAKOAK

- Janitz Izeta Korta, Otsailaren 25ean jaio zen.

- Nahia Andres Alberdi, Otsailaren 19an jaio zen.

HILDAKOAK

Manuela Aizpurua Arana. Martxoaren 1ean hil zen 91 urte zituela. Aginaga.



Oharra

Merkatu Txikirako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenik orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefono zenbakian: 943 360 321. Edo bestela, e-postaz bidali honako helbidera: erredakzioa@noaua.com



ZINEMA

EUSKARAZ

film laburren zirkuitoa '07



Loturak
Ane Muñoz



Barean
Asier Altuna



Xokoa Beleari Ipurbeltz
Oskar Galan



Osaba Daxinto
Iñaki Beraetxe



Nidori
Koldo Almandoz



Bilintx
John Andueza



martxoak

15

osteguna

sutegi

20h00

www.eopagunea.org/film/laburrenzirkuitua

Txotx!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



Kalezar, Auzoa, 39 • USURBIL • Tel: 943 362 228
www.sidrassaizar.com



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63



☎ 943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubietta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astiazaransagardoak.com



Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxotik

Esykara kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com